



ADUNAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ALKATETZA EBAZPENA
Nº 1/2025

Adunako ibarrean bidea zabaltzeko obren esleipena – GI3610 errepeidea

Kontuan hartuta, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 28. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, Alkatetza honek beharrezkotzat jotzen duela ADUNAKO IBARREAN – GI-3610 ERREPIDEAN BIDEA ZABALTZEKO obrak gauzatzeko kontratu bat izapidetzea.

Udal Zerbitzu Teknikoen txostena ikusita, non, txostenaren alderdi teknikoak eta jarduketa horren bideragarritasuna zehazten dira. Dagokion Obra Proiektuan eta lizitazioa arautzen duten Baldintza Teknikoen Agirietan ere jasota daude.

2023ko urtarrilaren 12ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez, proiektua gauzatu izana justifikatzeko memoria onartu zen, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 236.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera (SPKL 2017).

Udal honetako idazkari kontu-hartzaileak kontratazio-espeditentari buruz egindako txosten juridikoa eta ekitaldiko aurrekontuan kreditu egokia eta nahikoa dagoela egiaztatzen duen agiria aztertu dira.

Kontratazio Mahaiak egindako proposamena aztertu da, eta honako lizitatzailerik hauen 5 eskaintza aurkeztu dira: CONSTRUCCIONES OTEGUI GAZTAÑAGA SL, CAMPEZO OBRAS Y SERVICIOS SA, CONSTRUCCIONES MARIEZKURRENA SL, CONSTRUCCIONES Y EXCAVACIONES ITURRIOZ SA, eta BIXENTE OTEGI LIZASO SL. Horiek, honako irizpide

DECRETO DE ALCALDÍA
Nº 1/2025

Adjudicación de las obras para la ampliación de vial en la vega de Aduna – Carretera GI3610

Considerando que, a los efectos previstos en el artículo 28 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público -LCSP 2017-, esta Alcaldía entiende necesario que se tramite un contrato de ejecución de las obras para LA AMPLIACIÓN DE VIAL EN LA VEGA DE ADUNA – CARRETERA GI-3610.

Visto el informe de los Servicios Técnicos municipales, en el que se detallan los aspectos técnicos del mismo, así como la viabilidad de dicha actuación, recogiendo en el correspondiente Proyecto de Obras y en los Pliegos de Prescripciones Técnicas por los que se rige la licitación.

Considerando que, mediante acuerdo del Pleno de fecha 12 de enero de 2023, se procedió a aprobar la Memoria de justificación de la ejecución del proyecto, de conformidad con lo previsto en el artículo 236.1 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público -LCSP 2017-.

Visto el informe jurídico sobre el expediente de contratación emitido por el Secretario Interventor de este Ayuntamiento y la certificación de existencia de crédito adecuado y suficiente en el presupuesto del ejercicio.

Vista la propuesta formulada por la Mesa de Contratación, habiéndose presentado 5 ofertas de los siguientes licitadores: CONSTRUCCIONES OTEGUI GAZTAÑAGA SL, CAMPEZO OBRAS Y SERVICIOS SA, CONSTRUCCIONES MARIEZKURRENA SL, CONSTRUCCIONES Y EXCAVACIONES ITURRIOZ SA, y BIXENTE OTEGI LIZASO SL,



ADUNAKO UDALA (GIPUZKOA)

hauen arabera, ondoren zehazten den puntuazioa lortu dute:

1.- Lanen memoria teknikoa eta programazioa, gehienez ere 25 puntu; horien balorazioa honela banakatzen da:

- 1.1.- Lanen antolaketa: 5 puntu, gehienez.
- 1.2.- Obrek irauten duten bitartean ibilgailuen trafikoari ahalik eta kalte gutxien egiteko plana: 4 puntu, gehienez.
- 1.3.- Lan-programa: 6 puntu, gehienez.
- 1.4.- Exekuzio-proiektuaren azterketa: 3 puntu, gehienez.
- 1.5.- Giza baliabideak eta baliabide materialak: 3 puntu, gehienez.
- 1.6.- Ingurumen-baldintzak: 3 puntu, gehienez.
- 1.7.- Beste abantaila batzuk. 1 puntu, gehienez.

Udal arkitekto aholkulariak eta udaleko ingurumen-teknikari aholkulariak txostenak egin dituzte balio-judizioen bidez ebalua daitezkeen irizpideen balorazioari buruz, eta horiek espedientean sartu dira. Txosten horien emaitza honako hau izan da:

quienes de acuerdo a los siguientes criterios, han obtenido la puntuación que se detalla a continuación:

1.- Memoria técnica y programación de los trabajos, hasta 25 puntos, cuya valoración se desglosa de la siguiente forma:

- 1.1.- Organización de los trabajos: Hasta 5 puntos.
- 1.2.- Plan para minimizar las afecciones en el tráfico rodado durante la obra: Hasta 4 puntos.
- 1.3.- Programa de trabajo: Hasta 6 puntos.
- 1.4.- Análisis del proyecto de ejecución: Hasta 3 puntos.
- 1.5.- Medios humanos y materiales: Hasta 3 puntos.
- 1.6.- Condiciones medioambientales: Hasta 3 puntos.
- 1.7.- Otras ventajas. Hasta 1 puntos.

Realizados los informes por parte del Arquitecto asesor municipal y por la Técnico Medioambiental asesora municipal, sobre la valoración de los criterios evaluables mediante juicios de valor, los cuales quedan incorporados al expediente, el resultado obtenido ha sido el siguiente:

EMPRESA	PUNTUACIÓN POR CRITERIOS VALORABLES							TOTAL
	1.1.	1.2.	1.3.	1.4.	1.5.	1.6.	1.7.	
PUNTUACIÓN MÁXIMA	5.00	4.00	6.00	3.00	3.00	3.00	1.00	25.00
CONSTRUCCIONES OTEGUI GAZTAÑAGA SL	1	1	1	0,5	0,5	1	0,5	5,50
CAMPEZO OBRAS Y SERVICIOS SA	5	4	3	3	2,5	2,5	0,3	20,03
CONSTRUCCIONES MARIEZKURRENA SL	1	1	4	1	1	1,5	0	9,50
CONSTRUCCIONES Y EXCAVACIONES ITURRIOZ	4	3	5,8	3	2,7	2,5	0,5	21,50
BIXENTE OTEGI LIZASO SL	4,5	2	6	3	2,5	3	0,7	21,70



ADUNAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Aipatutako puntuazioaren berri eman ondoren, bidezkoa da bigarren gutun-azala irekitzea. Bertan, irizpide automatikoak daude, ebaluatu beharrekoak, eta 15.2 klausularen arabera, honako hauek dira:

- 1.- **Lizitazio-tasaren beheranzko hobekuntza:** 60 puntu, gehienez.
- 2.- **Gauzatzeko epea murriztea.** 5 puntu, gehienez.
- 3.- **Nahitaezko bermearen epea luzatzea.** 10 puntu, gehienez.

Habiéndose dado cuenta de la citada puntuación, es procedente abrir el sobre segundo, donde se encuentran los criterios automáticos, objeto de evaluación, y que, de acuerdo a la cláusula 15.2, son los siguientes:

- 1º.- **Mejora a la baja del tipo de licitación:** Hasta 60 puntos.
- 2º.- **Reducción del plazo de ejecución.** Hasta 5 puntos.
- 3º.- **Ampliación del plazo de garantía obligatoria.** Hasta 10 puntos.

Irizpide automatikoen balorazioa egin ondoren, emaitza hau lortu da:

Realizada la valoración de los criterios automáticos obtienen el siguiente resultado:

EMPRESA	PUNTUACIÓN VALORABLE POR CRITERIOS AUTOMÁTICOS			
	1.	2.	3.	TOTAL
PUNTUACIÓN MÁXIMA	60.00	10.00	5.00	75.00
CONSTRUCCIONES OTEGUI GAZTAÑAGA SL	4,13	10	5	19,13
CAMPEZO OBRAS Y SERVICIOS SA	13,74	6,67	5	25,40
CONSTRUCCIONES MARIEZKURRENA SL	5,47	10	5	20,47
CONSTRUCCIONES Y EXCAVACIONES ITURRIOZ SA	43,53	10	5	58,53
BIXENTE OTEGI LIZASO SL	37,03	6,67	3	46,70

Mahaiak enpresak sailkatu ditu, lizitazioaren emaitza osoaren arabera, handienetik txikienera:

La mesa procede a la clasificación de las empresas en función del resultado total de la licitación por orden decreciente:

EMPRESA	SOBRE 1	SOBRE 2	TOTAL
PUNTUACIÓN MÁXIMA	25.00	75.00	100.00
CONSTRUCCIONES Y EXCAVACIONES ITURRIOZ	9,50	58,53	68,03
BIXENTE OTEGI LIZASO SL	5,50	46,70	52,20
CAMPEZO OBRAS Y SERVICIOS SA	20,03	25,40	45,43
CONSTRUCCIONES MARIEZKURRENA SL	21,50	20,47	41,97
CONSTRUCCIONES OTEGUI GAZTAÑAGA SL	21,70	19,13	40,83



ADUNAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Sektore publikoko kontratazioari buruzko araudian jasotako aginduak bete dira, eta, bestalde, eskaintzarik onuragarriena CONSTRUCCIONES Y EXCAVACIONES ITURRIOZ SA merkataritza-sozietateak aurkeztutakoa da, zeinak, era berean, eskatutako dokumentazioa aurkeztu baitu, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 159.4 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoaren arabera, osoko bilkura da kontratazio-organo eskuduna, eta alkatetza, berriz, eskuordetzaz.

Kontuan hartu da Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 159., 151. eta 153. artikuluetan xedatutakoa.

Considerando que se han observado las prescripciones contempladas en la normativa de contratación del sector público y, de otra parte, que la oferta más ventajosa, es la presentada por la mercantil CONSTRUCCIONES Y EXCAVACIONES ITURRIOZ S.A., que ha presentado asimismo la documentación requerida de acuerdo con lo establecido en el artículo 159.4 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

Visto que, de conformidad con lo previsto en la Disposición Adicional Segunda de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, es el Pleno el órgano de contratación competente y la Alcaldía por delegación.

Considerado lo dispuesto en los artículos 159, 151 y 153 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

EBAZTEN DUT

LEHENENGOA.- CONSTRUCCIONES Y EXCAVACIONES ITURRIOZ S.A. enpresari esleitzea Adunako ibarrean bidea zabaltzeko obrak egiteko kontratua (GI-3610 errepidea). Prozedura ireki sinplifikatuaren bidez izapidetu da, izapidetze arruntarekin, 664.489,86 eurotan (549.165,17 euro gehi % 21eko BEZa: 115.324,69 euro).

Gauzatzeko epea 14 astekoa izango da, eta, horrela, pleguan ezarritako 20 asteko epea 6 astetan murriztuko da.
Berme-epea 6 urtekoa izango da.

BIGARRENA.- Errekerimendua egitea CONSTRUCCIONES Y EXCAVACIONES ITURRIOZ SA merkataritza-sozietateari, aipatutako kontratua formalizatu dezan 7 egun balioduneko epean, esleipen hau lizitatzailerei jakinarazten zaien egunetik hasita, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 153. artikuluan eta

RESUELVO

PRIMERO.- Adjudicar a la mercantil CONSTRUCCIONES Y EXCAVACIONES ITURRIOZ S.A. el contrato de ejecución de las obras para la ampliación de vial en la vega de Aduna – Carretera GI-3610, tramitado mediante procedimiento abierto simplificado, tramitación ordinaria, por importe de 664.489,86 euros (549.165,17 euros más 21% IVA 115.324,69 euros).

Plazo de ejecución de 14 semanas, reduciendo así el plazo de 20 semanas establecido en el Pliego en 6 semanas.
El plazo de garantía será de 6 años.

SEGUNDO.- Requerir a la mercantil CONSTRUCCIONES Y EXCAVACIONES ITURRIOZ S.A. para que proceda a la formalización de dicho contrato en el plazo de 7 días hábiles siguientes a aquél en que se realice la notificación de la presente adjudicación a los licitadores en la forma prevista en el artículo 153 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de



ADUNAKO UDALA
(GIPUZKOA)

administrazio-klausula partikularren agirietako 16.2 klausulan aurreikusitako moduan.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea adjudikaziodun izan ez diren lizitatzaleei, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 155. artikuluan xedatutakoaren arabera.

LAUGARRENA.- Kontratazio honen formalizazioa Kontratatzailearen profilean argitaratzea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 154. artikuluan xedatutakoaren arabera (SPKL 2017).

BOSTGARRENA.- Udalaren obren zuzendaritza fakultatiboa izendatzea kontratu honen arduradun, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 62. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

SEIGARRENA.- Esleitutako kontratuaren oinarrizko datuak jakinaraztea Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroari, inskriba ditzan. Datu horien artean egongo dira esleipendunaren nortasuna, esleipenaren zenbatekoa eta Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokion banakapena.

Contratos del Sector Público, así como en la Cláusula 16.2 de los Pliegos de Clausulas Administrativas Particulares.

TERCERO.- Notificar el presente acuerdo a los licitadores que no han resultado adjudicatarios, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 155 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

CUARTO.- Publicar la formalización de la presente contratación en el Perfil de contratante, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 154 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público -LCSP 2017-.

QUINTO.- Designar como responsable del presente contrato, de conformidad con lo previsto en el artículo 62 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, a la Dirección facultativa de obras del Ayuntamiento.

SEXTO.- Comunicar al Registro de Contratos del Sector Público, para su inscripción, los datos básicos del contrato adjudicado, entre los que figurará la identidad del adjudicatario, el importe de adjudicación de los mismos, junto con el desglose correspondiente del Impuesto sobre el Valor Añadido.

Adunan, 2025eko urtarrilaren 13an

En Aduna, a 13 de enero de 2025.

ALKATEA
Cristina Rodríguez Mendicute

LA ALCALDESA
D^a. Cristina Rodríguez Mendicute

